

PRENTSA-OHARRA

Asteazkenean hasiko da ikasturtea Iruñeko Udaleko hamaika haur-eskoletan, non 0 eta 3 urte arteko 909 haur dauden matrikulatuta

Behin-behineko datuen arabera, okupazio-maila % 94,89koa da, eta oraindik izena eman daiteke geratzen diren 49 lekuak betetzeko

Abuztuaren 16an, asteazkenarekin, irekiko dituzte ateak Iruñeko Udaleko hamaika haur-eskolek 2017 – 2018ko ikasturteari hasiera emateko. Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren behin-behineko datuen arabera, 0 eta 3 urte arteko 909 haur daude matrikulatuta, eta 49 leku bete gabe geratzen dira oraindik ere. Hortaz, okupazio-maila % 94,89koa da.

Donibane, Goiz Eder (egonaldi erdia), Hello Buztintxuri, Mendebaldea eta Printzearen Harresi haur eskoletan leku guztiak beteta daude. Beste hauetan, aldiz, badira leku libreak: Goiz Eder (leku bat, egonaldi osoan), Hello Azpilagaña (6 leku, egonaldi erdian), Hello Egunsenti (13 leku, egonaldi osoan, eta leku bat, egonaldi erdian), Izartegi (9 leku), José María Huarte (5 leku), Mendillorri (10) eta Rotxapea (4).

Guztira 226 lagun daude itxaron-zerrendan, eta horregatik izena emateko epea zabalik dago, abuztuaren 16tik aurrera. Kontuan izan behar da haur-eskola berean leku libreak eta itxaron-zerrenda egon daitezkeela, libre geratzen diren lekuak ez datozelako bat haur eskatzaileen adin edo mailarekin (bularrekoak, ibiltariak, ertainak eta nagusiak).

Birmoldaketa-lanak Haurtzaro haur-eskolan, eskualde-araudira egokitze

Haur-eskolei dagokienez, ikasturte hasierako berritasun nagusia bigarren seihileko honetan Arrotxapea auzoko Haurtzaro haur-eskolan egingo diren birmoldaketa-lanak dira, zentroa eskualde-araudira egokitze aldera. Eskola itxita egongo da birmoldaketa-lanak egin bitartean, eta bertan izena eman duten hurrek Haurtzarotik gertu dagoen Rotxapea haur-eskolan emango diote hasiera ikasturteari. Azken honetan ere hainbat birmoldaketa-lan egin dira udan, zentroak zituen hezetan-arazoekin amaitzeko.

Datorren urteko lehenengo seihilekoan, 2018ko urtarriletik aurrera, Hello Egunsenti haur-eskola eskualde-araudira egokitze birmoldaketa-lanak egitea aurreikusita dago. Hortaz, bertako haurrak lekuz aldatuko lirateke, Haurtzaro haur-eskolara, ordurako zabalik egongo dena. Hala,

1. orrialdea, (e)tik 2



ikasturte amaierarako Iruñeko Udalak eta Haur Eskolen Erakunde Autonomoak dituzten hamaika haur-eskoletatik bederatzi Nafarroako Gobernuak onartutako araudira egokituta egongo dira (Donibane HE eta Mendebaldea HE geratuko lirateke bakarrik moldatzeke). Rotxapea HEko instalazioak zerbitzu berri bat ematera bideratuko direla gogoratu beharra dago, Familia-Gune izenekoa, haurren heziketa laguntzeko, gurasoekin batera.

Menu osasungarriak eta ildo pedagogikoa

2017–2018ko ikasturtean ere haur-eskoletako sare osora hedatuko dira menu osasungarriak, ekimen hori aurreko ikasturtean gauzatu eta gero, modu esperimentalean, Hello Buztintxurin eta Donibanen. Hala, 0 eta 3 urte arteko haurren menuak prestatzeko erabilitako oinarritzko elikagaiak gertukoak, freskoak, sasoikoak, hornitzaileei zuzenean erositakoak eta ekologikoak izango dira, eta modu horretan haien protagonismoa eta kalitatea berreskuratuko dituzte, oinarri hartuta irizpide organoleptikoak (zapora hobea, jateko gogo gehiago), eta nutrizio- zein osasun-irizpideak.

Halaber, joan den ekainean onartu zen ildo pedagogiko berria ezarriko den lehenengo ikasturtea izango da hauxe. Ildo pedagogiko hori partaidetza lan baten ondorio izan zen, non parte hartu baitzuten Erakunde Autonomoak, hezitzaileek, haur-eskoletako zuzendariak, familiek eta adituek, besteak beste. Bi dokumentuk osatzen dute, eta haietan hamabi printzipio gidari komun ezarri eta deskribatzen dira, hezkuntza-filosofia, ideia edo inspirazio teoriko zein paradigmaticoekiko komunak direnak, eta haietan oinarrituko da Iruñeko haur eskola publikoen hezkuntza-proiektua.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 11n

